



BALIO PROPOSAMENA

Enpresak bezeroen arazoei edo beharrei, eskaintzen dion konponbidea.

Gure taldea proposatzen du, Euskal herriko mailan, odontologia arloan interesa duten pertsoneri, informazio daukan aldizkari bat egitea interneten (web gune bat) bitartez edo fisiko eran.

Ikertu dugunez, hezkuntza metodologia aldatzen ari da, ondorioz; ikasteko era desberdinak garatu dira. Metodologia horri bultzada bat emateko, baliabide desberdinak erabili ahal dira, adibidez informazioa aurkitzeko iturri desberdinak: internet, aldizkariak...

• Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure aldizkariaren bitartez, odontologiari buruzko informazioa biltzen ari den pertsonari lagundu eta bideratzen diogu, bere beharrak eta arazoak konponduz.

• Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Beste aldizkarietatik desberdinduko gara, ezaugarri hauei esker:

- Hiztegia erraza baten bitartez komunikatuko gara, beraz hitz teknikoak ez ditugu erabiliko. Honi esker, edozein pertsona uler dezake gure informazioa.
- Gure aldizkaria ikasleentzat, irakasleentzat eta odontologiako profesionalentzat zuzenduko dugu.
- Ordainketa metodoa eroso izango da: eskuz, kreditu txartela edo transferentziaren bitartez.

Gure aldizkaria, beste aldizkarietatik bereizten da, azaldu dugun moduan, ez delako bakarrik odontologiako profesionaleri zuzenduko, baizik eta irakasleei eta ikasleei ere. Hau dela eta aipatu dugun moduan hizkuntza erraza erabiliko dugu, pertsona guztiek uler dezaten guk transmititutako ideiak. Gainera ordainketa metodo eroso erabiliko dugunez, bezeroentzat erraza izango da produktu hau eskuragarri izatea.